

**BALORE-MERKATUKO ALDI BATERAKO FINANTZA-  
INBERTSIOEN KODEA**

Balore Merkatuaren Legeak, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateginak, bere bosgarren xedapen gehigarrian (Irabazi asmorik gabeko erakundeen aldi baterako finantza-inbertsioei buruzko murrizketak) xedatzen duenez, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak, Espainiako Bankuak eta Ekonomia Ministerioak, bakoitzak bere ikuskapenaren esparruan, berariazko jokabide-arauak onartuko dituzte aldi baterako finantza inbertsioen inguruan, eta arau horiek izango dituzte fundazioek, establezimenduek, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteek, lanbide-elkargoek, enplegua sustatzeko funtsek, aseguru-mutuek, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten gainerako sozietateek eta hala badagokio, Sozietateen gaineko Zergan karga-tasa murriztuak dituzten gainerako entitateak, baldin eta inbertsio dibertsifikaziorako araubide berariazkorik ez badute eskudiruaren errentagarritasuna optimizatzeko, eta funtzionamendu-arauen arabera etekinak lortzeko erabil badezakete.

Agindu hori Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legearen bidez sortu zen. Lege horren arabera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (aurrerantzean "BMBN"), 2003ko azaroaren 20ko erabakiaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakundeen jokabide-kode bat onartu zuen, aldi baterako finantza-inbertsioak egiteko. Bestalde, Espainiako Bankuak, Gobernu Kontseiluaren 2003ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez, xedatu zuen kode hori modu berean aplikatuko zitzaizela irabazi asmorik gabeko erakundeen aldi baterako finantza-inbertsioei, gordailu gisa, mailegu gisa, finantza-aktiboen aldi baterako lagapen gisa edo antzeko beste batzuen bidez, baldin eta horiek itzultzeko betebeharra bazuten eta balore-merkatuaren antolamendu eta diziplina araei lotuta ez bazeuden.

BMBNko Kontseiluak irabazi asmorik gabeko erakundeen aldi baterako inbertsioei buruzko jokabide-kode berria onartu du (BOE, 55. zk., 2019ko martxoaren 5koa), Kontseiluak 2003ko azaroaren 20an onartutakoaren orde.

Aldi baterako finantza-inbertsioak egiteko Kutxa Fundazioaren jokabide-kodeak (aurrerantzean, "**Fundazioa**") adierazten du Fundazioak konpromisoa hartu duela aldi baterako finantza-inbertsioak egoki aukeratzeko, eta inbertsio-aukera guztiek eskaintzen dituzten segurtasuna, likidezia eta errentagarritasuna baloratzen ditu. Konpromiso hori, gainera, bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 13. artikularekin; horren arabera, *"Patronatuari dagokio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, horien errendimendua eta erabilgarritasuna gordez"*.

Aipatutako arauetan aurreikusitakoa betetzeko eta finantza-inbertsioen politika arautzeko, Fundazioaren Patronatuak jarrera-kode hau onartzea erabaki du (aurrerantzean, "**Kodea**")

## **Aplikazio eremua**

Kode honen ondorioetarako, finantza-tresnetan egindako inbertsioak aldi baterako finantza inbertsiotzat hartuko dira, honako hauek izan ezik:

- Fundazio-tituluaren, Fundazioaren estatutuen edo aplikatzekoa zaion araudiaren arabera, xedapen askearen mende dauden inbertsioak.
- Fundazioaren ondarearen zatia, fundatzaileak, dohaintza-emaileek edo bazkideek egindako ekarpenetatik datorrena, ez xedatzeko edo irauteko baldintzak betez.

Beraz, kode hau Fundazioaren jardueraren diru sarreretatik datorren Ondareari aplikatuko zaio, ez xedatzeko edo irauteko baldintzak bete behar ez dituen eremuari.

Finantza tresnatzat hartuko dira Balore Merkatuari buruzko Legearen finantza-tresnen eranskinean jasotakoak, 2. artikuluan aipatzen direnak.

## **Baliabideak eta antolaketa**

Fundazioak giza baliabideak eta baliabide materialak izanen ditu, bai eta finantza tresnetako inbertsioak hautatu eta kudeatzeko, bai eta egiten dituen edo egin nahi dituen inbertsioen bolumen eta izaerari egokituak eta proportzionatuak.

Finantza-inbertsioen ardura duten Fundazioko langileek beren eginkizunak betetzeko behar adina ezagutza tekniko eta esperientzia izan beharko dituzte; halakorik ez badute, edo komenigarritzat jotzen badituzte, Patronatuari kanpoko aholkularitza profesionala kontratatzea proposatu ahal izango diote, lanbide-gaitasuneko eta independentziako bermeak eskaintzen dituzten eta interes-gatazkek eragiten ez dieten hirugarrenek.

Patronatua aldi baterako finantza inbertsioen azken arduraduna izango da, eta bere eginkizunen artean honako hauek daude: inbertsioen hautapena gainbegiratzea, Kode hau betetzen dela zaintzea eta txostena Protektoratuari urtero bidali behar izatea, Kodea betetzen dela adierazteko. Horretarako, Patronatuak ezagutza tekniko eta esperientzia nahikoa ditu. Beharrezkoa izanez gero, aholkularitza profesionala jaso dezake Fundazioaren finantza inbertsioak baloratzeko.

Finantza-tresnen zorroak hamar milioi eurotik gorako balioa duen neurrian, Inbertsio Batzorde bat eratuko da, gutxienez Patronatuko hiru kidek osatua. Horietako bik, gutxienez, garatutako funtziorako behar diren ezagutza teknikoak eta esperientzia izango dituzte. Batzorde hori urtean lau aldiz bildu beharko da gutxienez, eta Patronatuari lagundu beharko diote, hitzarmen honen arabera egokiak diren aldi baterako inbertsioak hautatzen.

Zorroa adierazgarria den heinean, barne-kontrolako unitatea kontutan izango dugu, behar adinako agintea eta independentzia duena eta ezagutza egokiak dituzten langileek garatua, inbertsio-politika betetzen dela egiaztatzeko eta Fundazioak eragiketarako erregistratzeko eta dokumentatzeko eta inbertsioak zaintzeko sistema egokia duela ziurtatzeko.

## **Inbertsioen politika eta hautaketa: printzipioak eta mugak**

Fundazioak finantza-tresnetan egin beharreko inbertsioak aukeratzeko, inbertsio-aukera desberdinek eskaintzen dituzten **segurtasuna, likidezia** eta **errentagarritasuna** baloratuko ditu, hiru helburu horien artean beharrezko oreka dagoela zainduko da eta kontratatzeke unean merkatuak dituen baldintzak kontuan hartuko dira. Horretarako, printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- **KOHERENTZIA-PRINTZIPIOA**

Inbertsio estrategiak bat etorri beharko du erakundeak bere gain hartutako betebeharren profilarekin eta iraupenarekin eta diruzaintzako aurreikuspenekin.

- **LIKIDEZIA-PRINTZIPIOA**

Arau orokor gisa, behar bezain likidoak diren finantza-tresnetan inbertituko da. Fundazioaren finantza-inbertsio guztiak merkatu arautuetan edo negoziazio-sistema aldeaniztunetan egingo dira, bai eta inbertsio kolektiboko erakundeetan ere, European (UCITS) edo baliokideetan egunero dirua itzultzen dutenetan, inbertsioen likidezia bermatzeko. Kontuan hartu beharko da zein finantza-balio edo tresnatan inbertitzen den, ohiko kontratazio-bolumena kontuan hartuta.

- **DIBERTSIFIKAZIO-PRINTZIPIOA**

Fundazioak bere inbertsioei dagozkien arriskuak dibertsifikatuko ditu, elkarren artean korrelaziorik ez duten, jaulkitzaile desberdineko eta arriskuaren ikuspuntutik ezaugarri desberdinak dituzten aktiboz osatutako zorroa hautatuz. Fundazioak momentu oro kartera plural bat mantenduko du, dibertsifikazio printzipioa beteaz eta jaulkitzaileko kontzentrazio muga handiena %10a izanik.

- **KAPITALA ZAINTEKO PRINTZIPIOA**

Inbertsio politikak lehentasuna emanen dio kapitala zaintzeari. Fundazioaren inbertsio-politikak ez du espekulaziozkoa izan behar, eta, beraz, eragiketak ez dira diseinatuko epe laburreko merkatuen gorabeherekin gainbalioak lortzeko, eta ez dira zorpetzearen bidez egingo. Fundazioak kontratatutako finantza-produktuek ELGAko (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) herrialdeetako igorleak izan behar dituzte kontrapartetzat, eta kreditu-arriskuaren kalifikazioa ez da inoiz A- baino txikiagoa izango.

Fundazioak ondoren aipatzen diren produktuetan egin ahalko ditu inbertsioak, muga hauekin:

- Zor publikoa: Estatuaren bonuak, Estatuaren betebeharrak, Altxorraren zor-agiriak, Altxorraren letrak eta Gobernu batek jaulkitzen duen errenta finkoko edozein titulu.

Kreditu kalitate oneko aktiboetan inbertituko da (gutxienez A-koa edo baliokidea). Ratinga bat-batean eroriz gero, inbertsioa desegitea edo zorroan edukitzea komeni ote den baloratuko da, horrela ezarritako mugak gainditu ahal izango dira, baina erabakia Fundazioaren Patronatuari aurkeztu beharko zaio.

- Banku-gordailuak eta aktiboen aldi baterako eskuratzeko eragiketak, finantza-entitateetako gordailuak eta entitate horien aktiboen aldi baterako eskuraztea barne.
- Europako Batasunean (UCITS) harmonizatutako eguneroko itzulketak dituzten inbertsio fondoetako partaidetzak edo horien baliokideak, inbertsioen likidezia bermatzen dutenak. Moneta-merkatuko aktiboetako, errenta finkoko eta errenta finko mixtoko inbertsio-funtsetako partaidetzak. Azken hauek errenta aldakorrean izango duten pisua gehienez ere %30ekoa izango da.

Fundazioak kontratatzen dituen finantza produktu guztiak eurotan izendatuko dira irizpide orokor gisa.

Fundazioak errenta aldakorreko produktuetan era produktu eratorrietan zeharka inbertsio fondoetako partaidetzen bidez inbertituko du.

Arestian aipatu ez den beste edozein titulu ezin izanen da kontratatu Patronatuaren berariazko baimenik gabe.

Aktiboen kontratazioak muga hauek izanen ditu:

<b>AKTIBOEN TIPOLOGIA</b>	<b>ZORROAREN GAINEKO INBERTSIOAREN GEHIENEN MUGA</b>	<b>JAULKITZAILE BAKOITZEKO GEHIENEN MUGA ZORROAREN GAINEAN</b>
<i>Zor publikoa</i>		% 50
<i>Banku-gordailuak eta aktiboen aldi baterako eskurapenak</i>	% 100	% 50
<i>Moneta-merkatuko, errenta finkoko, eta errenta finko mixtoko aktiboetako inbertsio-funtsetako partaidetzak.</i>	% 20	% 10
<i>Errenta aldakorreko produktuak</i>	% 0	%0
<i>Produktu eratorriak</i>	% 0	%0